e. Espainiak nazioarteko akordioetatik eratorritako betebeharrak aplikatu behar baditu ere, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoek justifikatu egin beharko dute, txosten baten bidez, enpresa atzerritarraren jatorrizko estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek sektore publikoko entitateen kontratazioan parte har dezaketela, SPKLko 3. artikuluan zerrendatutakoekin parekagarriak eta antzeko baldintzetan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Bulego Ekonomiko eta Komertzialak prestatuko du eta aurkezten diren agiriekin batera joango da.

f. Adjudikazioduna enpresa-talde bat bada, ABEE gisa legalki eratua dagoela eta haren IFK frogatu beharko ditu.

g. Enpresa atzerritarrek beren agiriak ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztuko dituzte.

B. *Hala dagokionean, ordezkaritzaren egiaztagiriak:*

a. Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztu beharko dute, baita behar besteko ahalordea ere.

b. Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztu beharko dute, baita behar besteko ahalordea ere.

c. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Hala ere, ahalordea soilik egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, honen erregelamenduzko arauketan xedatutakoaren arabera.

C. *Kontratuaren xede den prestazioa emateko gaikuntza enpresarial edo profesionalaren egiaztagiriak:*

Lizitatzaileak karatulako **4. atalean** xedatutakoaren arabera egiaztatu behar badu gaikuntza enpresariala edo profesionala, horren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

previa acreditación de éste por la empresa.

e. Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior, que se acompañará a la documentación presentada, que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asumibles a los enumerados en el artículo 3 de la LCSP, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente.

f. Si el adjudicatario resultase una agrupación de empresas deberá acreditar su constitución legal como UTE y el C.I.F. de la misma.

g. Las empresas extranjeras presentarán su documentación traducida de forma oficial al castellano o al euskera.

B. *Acreditación, en su caso, de la representación:*

a. Las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra, deberán presentar copia del DNI, así como poder bastante al efecto.

b. En caso de que la persona representante no posea DNI, deberá presentar fotocopia, legitimada notarialmente o compulsada por el órgano administrativo competente, del documento que lo sustituya reglamentariamente.

c. Si la empresa fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil. No obstante, si se trata de un poder para un acto concreto no será necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con lo dispuesto en su regulación reglamentaria.

C. *Acreditación de la habilitación empresarial o profesional para la realización de la prestación objeto del contrato*

En el caso de que el licitador deba acreditar su habilitación empresarial de conformidad con lo dispuesto en el **apartado 4** de la carátula, deberá aportar los documentos acreditativos de la misma.

D. *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak:*

a. Lizitatzaileek beren kaudimena egiaztatu ahal izango dute karatulako **4. atalean** adierazitako moduen, gutxieneko zenbatekoen eta egiaztagirien bidez.

b. ABEEn kasuan, horien kaudimena zehazteko, kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira. Denek sailkapenaren bidez egiaztatzen badute beren kaudimena, banakako sailkapenak metatuko dira, eskatutako sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko.

c. Kontratazio-organoari dagokio erabakitzea aurkeztutako dokumentazioak behar bezala justifikatzen dituen enpresaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala.

E. Zerga-betebeharrak eta Segurantza Sozialarekikoak egunean dituelako egiaztagiriak:

a. Jarduera Ekonomikoen Zergan (JEZ) kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda dagoela dioen egiaztagiria, aurtengo ekitaldiari dagokion alta edo JEZren azken ordainagiria aurkeztuz, eta zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioen erantzukizunpeko deklarazioarekin batera.

   Zerga horretatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek salbuespenaren erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute.

   ABEEk, eraketa gauzatu ondoren, zergan alta eman izana egiaztatu beharko dute, eta horren barruan dauden enpresei dagokien zerga ordaindu beharra izango dute.

b. Dagokion Aldundiko edo Estatuko Zerga Administrazioaren Bulegoak ezarritako zerga-betebeharrak bete izanari buruzko ziurtagiri positiboa, eta bertan, APKLAOeko 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete izana jasoko da.

   Gainera, ez du zerga izaerako zorrik eduki behar Lasarte-Oriako Udalarekin ordainketa gauzatzeko epealdian. Udalak, ofizioz, Diruzaintzan ageri diren datuen bitartez egiaztatuko du obligazio hori betetzen dela.

c. Segurantza Sozialarekiko obligazioak betetzeari buruzko ziurtagiri positiboa, Segurantza Sozialeko Diruzaintzak luzatua, eta bertan APKLAOeko 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

D. *Acreditación de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional:*

a. Los licitadores podrán acreditar su solvencia mediante los modos, importes mínimos y documentos acreditativos referidos en el **apartado 4** de la carátula.

b. En las UTEs, a efectos de determinación de su solvencia, se acumularán las características de cada una de las integrantes de la misma. En caso de que todas acrediten su solvencia mediante la clasificación, se acumularán las clasificaciones individuales a los efectos de poder acreditar la clasificación global requerida.

c. Corresponde al órgano de contratación determinar si la documentación presentada justifica suficientemente la solvencia económica y financiera y la solvencia técnica del empresario.

E. *Acreditación de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social:*

a. Justificante de hallarse de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en el epígrafe correspondiente al objeto del contrato, mediante presentación del alta referida al ejercicio corriente o del último recibo del IAE, completado con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto.

   Los sujetos pasivos que estén exentos del impuesto deberán presentar declaración responsable indicando la causa de exención.

   Las UTEs deberán acreditar, una vez formalizada su constitución, el alta en el impuesto, sin perjuicio de la tributación que corresponda a las empresas integrantes de la misma.

b. Certificación positiva relativa al cumplimiento de las obligaciones tributarias expedidas por la Agencia de Administración tributaria Foral o Estatal que corresponda, en la que se contenga genéricamente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 13 del RGLCAP.
   Además, no deberá tener deudas de naturaleza tributaria en período ejecutivo de pago con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. El Ayuntamiento, de oficio, comprobará mediante los datos obrantes en la Tesorería el cumplimiento de dicha obligación.

c. Certificación positiva relativa al cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social expedidas por la Tesorería de la Seguridad Social, en la que se contenga genéricamente el cumplimiento de los requisitos establecidos en el art. 14 del RGLCAP.

Erregimen berezian alta ematetik salbuetsita dauden profesional elkargokideek, baldin eta dagokion elkargo profesionaleko Aurreikuspen Sozialerako Mutualitatean sartzea aukeratzen badute edo lehendik aukeratu badute, dagokion Mutualitatearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, bertako kide direla egiaztatzen duena.

Ziurtagiri hori aurkeztu arren, interesatua ez da salbuetsita egongo baldintza-orri hauetan adierazten diren gainerako obligazioak egiaztatu behar izatetik bere ardurapean langileak dituenean, eta horrela egiten ez badu, erantzukizunezko deklarazio baten bidez justifikatu beharko du xehetasun hori.

d. HAMABI (12) HILABETEKO epea igaro bada aipatutako egiaztagiriak egin ziren egunetik, adjudikaziodunak berritu egin beharko ditu eta hurrengo fakturarekin batera aurkeztu beharko ditu; horiek gabe ez baitzaio fakturarik ordainduko.

e. Nolanahi ere, lizitatzaileak berariaz eman diezaioke Lasarte-Oriako Udalari dagokion Foru Aldundiaren Zerga Administraziora eta Segurantza Sozialaren Diruzaintza Orokorrera jotzeko eta, kontratazio honen ondorioetarako, informazio fiskala eta soziolaborala eskuratzeko.

3. Lizitatzailea ROLECEn edo REVASCONen inskribatuta egoteak salbuetsi egingo du nortasunari, jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, gaikuntza enpresarial edo profesionalari, eta, hala badagokio, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta gaikuntza tekniko edo profesionalari eta kontratu honetan eskatzen diren gainerako inguruabarrei buruzko dokumentazioa aurkeztetik, hargatik eragotzi gabe inskripzio-ziurtagirian jasotzen ez den dokumentazioa aurkezteko betebeharra.

Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoa sinatu duen estatu bateko enpresaburu atzerritarren kasuan, haien gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeko debekurik eza egiaztatu ahal izango dira, ahal den kasuetan, Europar Batasuneko estatu kide batek ezarritako kontratatzeko baimena duten enpresaburuen zerrenda ofizialean kontsulta eginda, edo, bestela, alderdi horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuta.

Lizitatzaileen erregistroen edukiaren froga horien arduradunak helarazitako ziurtagiriaren bidez egingo da. Ziurtagiri horrekin batera, erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko da, bertan jasotako datuak eta egoerak ez direla aldatu adierazteko.

Los profesionales colegiados que estén exentos de la obligación de alta en el régimen especial y que opten o hubieran optado por incorporarse a la Mutualidad de Previsión Social del correspondiente colegio profesional, deberán aportar una certificación de la respectiva Mutualidad, acreditativa de su pertenencia a la misma.

La presentación de dicha certificación no exonera al interesado de justificar las restantes obligaciones que se señalan en el presente pliego cuando tenga trabajadores a su cargo, debiendo, en caso contrario, justificar dicha circunstancia mediante declaración responsable.

d. El adjudicatario, transcurrido el período de DOCE (12) MESES desde la fecha en que fueron expedidas las certificaciones referidas, deberá renovarlas y presentarlas junto a la próxima factura que expida, sin las cuales no se pagará ésta.

e. En todo caso, el licitador podrá autorizar expresamente al Ayuntamiento de Lasarte-Oria para acudir a la Administración Tributaria Foral y a la Tesorería General de la Seguridad Social y acceder a la información tributaria y socio-laboral a los efectos de la presente contratación.

3. La inscripción del licitador en el ROLECE o REVASCON le eximirá de aportar la documentación relativa a la personalidad y capacidad de obrar, y la representación, así como la habilitación profesional o empresarial y, en su caso, la solvencia económica y financiera y técnica o profesional y demás circunstancias que se requieran en este contrato, sin perjuicio de la obligación de presentar la documentación exigida que no conste en el certificado de inscripción.

En el caso de los empresarios extranjeros de un Estado Miembro de la Unión Europea o signatario del Espacio Económico Europeo, la acreditación de su capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar se podrá realizar, en los casos en que sea posible, mediante consulta en la correspondiente lista oficial de empresarios autorizados para contratar establecida por un Estado Miembro de la Unión Europea, o bien mediante la aportación de la documentación acreditativa de los citados extremos.

La prueba del contenido de los Registros de Licitadores se efectuará mediante certificación del órgano encargado del mismo, la cual deberá acompañarse de una declaración responsable en la que se manifieste que las circunstancias reflejadas en la misma no han experimentado variación.

Bi erregistro ofizialetako edozeinen inskripzio-ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2. eta 96. artikuluetan eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

4. Aipatutako dokumentazio guztia ez bada behar bezala, eta adierazitako epean, betetzen, lehiatzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3, BEZ kanpo, eskatuko zaio zigor gisa, kontratatzeko debekuei buruz SPKLko 71.2.a). artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

5. Aurreko lerrokadan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, eta ZAZPI (7) EGUN BALIODUNEKO epea emango zaio aurreko ataletan xedatutako betebeharrak betetzeko.

44. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

1. Kontratazio-organoak, eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo BOST (5) EGUN BALIODUNEKO epean, kontratua adjudikatuko du.

   Nolanahi ere, adjudikazioak gehienez HAMABOST (15) EGUNEKO epean egin beharko dira, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, adjudikazio-irizpide bakarra prezioa denean, edo BI (2) HILABETEKO gehieneko epean, "B" artxibo elektronikoa irekitzen denetik kontatzen hasita, baldin eta irizpide bat baino gehiago badago edo irizpide bakarra bizi-zikloaren kostua txikiagoa bada.

   Aurreko lerrokadan adierazitako epeak HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEZ luzatuko dira, eskaintza anormalki baxuetarako prozedura tramitatu behar denean.

   Adjudikazioa adierazitako epeen barruan egiten ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren proposamena erretiratzeko eta, halakorik badago, behin-behineko bermea itzultzeko.

2. Adjudikazio-ebazpena arrazoitu egin beharko da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta HAMABOST (15) EGUNEKO epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

3. Jakinarazpenek eta iragarkiak beharrezko informazioa jaso beharko dute adjudikazio-prozeduran interesatuek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri hala izan dezaten, bereziki SPKLren 151.2 artikuluan eskatutakoa, eta SPKLren 155.3 artikuluko konfidentzialtasun-

La presentación del certificado de inscripción de cualquiera de los dos registros oficiales tendrá los efectos previstos en el artículo 87.2 y 96 de la LCSP, así como en el artículo 19 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo.

4. De no cumplimentarse adecuadamente, y en el plazo establecido, toda la documentación citada anteriormente, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.a) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

5. En el supuesto señalado en el párrafo anterior, se procederá a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas, concediéndole un plazo de SIETE (7) DÍAS HÁBILES para cumplimentar las obligaciones dispuestas en los apartados anteriores.

44. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

1. El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los CINCO (5) DÍAS HÁBILES siguientes a la recepción de la documentación.

   En todo caso, la adjudicación deberá recaer en el plazo máximo de QUINCE (15) DÍAS a contar desde el siguiente al de apertura de las proposiciones, cuando el único criterio de adjudicación sea el del precio, o en el plazo máximo de DOS (2) MESES a contar desde la apertura del archivo electrónico “B”, en caso de una pluralidad e criterios o el del menor coste del ciclo de vida como único criterio.

   Los plazos indicados en el párrafo anterior se ampliarán en QUINCE (15) DÍAS HÁBILES cuando sea necesario tramitar el procedimiento para las ofertas anormalmente bajas.

   De no producirse la adjudicación dentro de los plazos señalados, los licitadores tendrán derecho a retirar su proposición, y a la devolución de la garantía provisional, de existir ésta.

2. La resolución de adjudicación deberá ser motivada y se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de QUINCE (15) DÍAS.

3. La notificación y la publicidad referidas deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, en particular, la exigida en el artículo 151.2 de la LCSP, sin perjuicio de la ex-

salbuespena kontuan hartuta.

4. Jakinarazpena baliabide elektronikoen bidez egingo da, SPKLren 15. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

5. Kontratazio-organoak lizitazioa esleitu gabe uztea erabaki ahalko du, hala egokituz gero, kontratazio-mahaiak hala proposatuta, baldin eta baldintza-agiriko irizpideekin bat datorren eskaintza edo proposamen onargarririk ez balego.

45. KONTRATUA EZ EGITEKO ETA PROZEDURARI UKO EGITEKO ERABAKIA

Kontratazio-organoak adjudikazio-prozedurari uko egitea edo kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabaki dezake, betiere kontratua formalizatu aurretik eta SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

46. KONTRATUA FORMALIZATZEA

1. Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den dokumentu administratibo bat formalizatzearekin batera gauzatuko da. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du; kasu horretan, gastuak bere kontura izango dira.

2. Gehienez ere HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEKO epean formalizatu beharko da kontratua, adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei egiten zaienetik kontatzen hasita.

3. Kontratua formalizatzeko egintza berean, eta kontratua sinatzearekin batera, enpresa adjudikaziodunak memoria sinatuko du, kontratu izaera duten dokumentu hauei dagokien: obra-unitateak osatzen dituzten oinarrizko materialen deskribapena, planoak, baldintza teknikoen agiriak, proiektuaren aurrekontuko prezioen taulak eta agiri hau. Dokumentu horiek sinatzean, jasota geratzen da ezagutzen dituela eta horiekin ados dagoela frogatzen du.

4. Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez balitz, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio zigor gisa. Kopuru hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko litzateke, berme hori eratu balitz, SPKLren 71.2.b) artikuluak debekuei buruz ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adju-

cepción de confidencialidad contenida en el artículo 155.3 de la LCSP.

4. La notificación se realizará por medios electrónicos, de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional 15ª de la LCSP.

5. El órgano de contratación podrá declarar desierta la licitación, en su caso, a propuesta de la mesa de contratación, cuando no exista ninguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuran en el pliego.

45. DECISIÓN DE NO CELEBRAR EL CONTRATO Y DESISTIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO

El órgano de contratación podrá desistir del procedimiento de adjudicación o decidir no adjudicar o celebrar el contrato, siempre antes de la formalización del contrato y de acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP.

46. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

1. El contrato se perfeccionará mediante su formalización en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

2. La formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los QUINCE (15) DÍAS HÁBILES siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores.

3. En el acto mismo de la formalización del contrato y junto con la firma del mismo, la empresa adjudicataria firmará la memoria en todo lo referente a la descripción de los materiales básicos o elementales que forman parte de las unidades de obra, los planos, los pliegos de prescripciones técnicas, y los cuadros de precios del presupuesto del proyecto así como el presente pliego, documentos todos ellos que tienen carácter contractual, dejando constancia con ello de su conocimiento y en prueba de su conformidad.

4. Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado en la notificación, se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.b) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

En este caso, el contrato se adjudicará al siguiente li-

dikatuko zaio, eskaintzen sailkapen hurrenkerari jarraituz, 43. klausulako dokumentazioa aurkeztu ondoren, lehen aipatutako epeetan.

5. Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratua burutu eta gehienez HAMABOST (15) EGUNEKO epean argitaratu beharko da, Udaleko kontratatzailearen profilean.

III. TITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN GAUZATZEKO ERREGIMEN OROKORRA

47. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

1. Kontratistak zorrotz beteko ditu obrak, klausula administratibo partikularren agirian eta preskripzio tekniko partikularren agirian jasotako estipulazioak, kontratuaren oinarri den proiektua, aplikazio orokorreko araudia eta, betiere, kontratatutako lanen izaerari dagozkion arau teknikoak betez, eta obren zuzendaritza teknikoak proiektuaren interpretazio teknikoan kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

   Jarraibideak hitzezkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta eperik laburrenean, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

2. Kontratistak bere gain hartuko du kontratua exekutatzea, SPKLren 239. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratistari dagokion kalte-ordainari kalterik egin gabe, ezinbesteko kasuetan eta kontratistak zuhurtziarik gabe jokatu ezean dagokiona.

3. Kontratua gauzatzeko egin beharreko operazioen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordainduko ditu kontratistak.

   Kontratazioak obra-proiektuaren idazketa barne hartzen badu, kontratista erantzule izango da obrak egin bitartean kontratazio-organoari zein hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galerengatik, proiektuaren akats eta gabezia teknikoengatik, edo proiektuari egotzi ahal zaizkion errakuntza materialengatik, omisioengatik eta legezko edo erregelamenduzko manuen arau-hausteengatik.

citador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación establecida en la cláusula 43, en los plazos antes señalados.

5. La formalización del contrato deberá publicarse, junto con el correspondiente contrato, en un plazo no superior a QUINCE (15) DÍAS tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del Ayuntamiento.

TÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

CAPÍTULO I. RÉGIMEN GENERAL DE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

47. OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA

1. El contratista ejecutará las obras con estricta sujeción a las estipulaciones contenidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y en el pliego de prescripciones técnicas particulares, al proyecto que sirve de base al contrato, a la normativa de general aplicación y, en todo caso, a las reglas técnicas propias de la naturaleza de los trabajos contratados, y conforme a las instrucciones que en interpretación técnica del proyecto diere al contratista la Dirección facultativa de las obras.

   Cuando las instrucciones fueren de carácter verbal, deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes para las partes.

2. El contratista realizará la ejecución del contrato a su riesgo y ventura, sin perjuicio de la posible indemnización que corresponda al contratista según lo establecido en el artículo 239 de la LCSP, en los casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista.

3. El contratista indemnizará todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.

   En el supuesto de que la contratación incluya la redacción del proyecto de obras, el contratista responderá de los daños y perjuicios que durante la ejecución de las obras se causen tanto al órgano de contratación como a terceros, por defectos e insuficiencias técnicas del proyecto o por los errores materiales, omisiones e infracciones de preceptos legales o reglamentarios en que el mismo haya incurrido, impu-

Kontratua enpresa batekin baino gehiagorekin batera gauzatzen bada, guztiek izango dute erantzukizun horien erantzukizun solidarioa.

4. Kontratistak nahitaez bete behar du kontratua gauzatzeko epea, karatulako **2. atalean** aurreikusitako moduan.

5. Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, kontratista izango da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

Udalak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren iritziz obraren zatiren bat behar bezala egin ez bada, enpresa kontratistak obraren zati hori berregin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta obra jaso ondoren ikusi.

Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, horiek onartzeko proposamena egin diezaioke Udalari, eta, ondorioz, prezioak jaitsi. Kasu horretan, enpresa kontratistak Udalak ezarritako prezio beheratuak onartu beharko ditu, non eta ez duen nahiago unitate akastunak eraistea eta berreraikitzea, kontura eta kontratuaren baldintzen arabera.

6. Kontratuaren xedean obra-proiektua idaztea sartzen bada, proiektua idatzi duen kontratistak kontratuaren xede den proiektua entregatu beharko du, euskarri informatikoko kopia batekin edo, hala badagokio, PTPAn adierazitako kopia-kopuruarekin batera.

SPKLren 315.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistaren erantzukizuna izango dira obrak egin edo ustiatu bitartean Udalari zein hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak, horiek proiektuaren akats eta gabezia teknikoengatik, edo proiektuari egotz dakizkiokeen akats materialengatik, omisioengatik eta legezko edo erregelamenduzko manuen arau-hausteengatik eragiten direnean. Salbuetsita geratzen dira Udalaren jarduketa edo agindu baten ondorio zuzen eta berehalakoak diren akatsak.

Era berean, proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo ez-egiteen ondorioz obra horren kostu errealetik % 20 baino gehiago desbideratzen bada, kontratistak kalte-ordaina ordaindu beharko dio Udalari, SPKLren 315.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

tables a aquél.

Si el contrato se ejecutara de forma compartida con más de una empresa, todos responderán solidariamente de estas responsabilidades.

4. El contratista está obligado a cumplir el plazo de ejecución del contrato en los términos previstos en el **apartado 2** de la carátula.

5. Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía, el contratista es responsable de los defectos que en la construcción puedan advertirse.

Si a juicio de la dirección facultativa designada por el Ayuntamiento, hubiera alguna parte de la obra ejecutada deficientemente, la empresa contratista deberá rehacerla sin derecho a indemnización de ningún género, aunque se hubiera apreciado después de la recepción.

Si la dirección estima que las unidades de obra defectuosas o que no cumplen estrictamente las condiciones del contrato son, sin embargo, admisibles, puede proponer al Ayuntamiento su aceptación, con la consiguiente rebaja en los precios. La empresa contratista, en tal caso, queda obligada a aceptar los precios rebajados fijados por el Ayuntamiento, salvo que prefiera demoler y reconstruir las unidades defectuosas por cuenta y con arreglo a las condiciones del contrato.

6. En el supuesto en que el objeto del contrato incluya la redacción del proyecto de obras, el contratista redactor del proyecto deberá entregar el proyecto objeto de la contratación acompañado de una copia en soporte informático o el número de copias que, en su caso, se indiquen en el PPTP.

Serán responsabilidad del contratista los daños y perjuicios que durante la ejecución o explotación de las obras se causen tanto al Ayuntamiento como a terceros, por defectos e insuficiencias técnicas del proyecto o por los errores materiales, omisiones e infracciones de preceptos legales o reglamentarios en que el mismo haya incurrido imputables a aquél, con arreglo a lo establecido en el artículo 315.2 de la LCSP, con excepción de los defectos que se puedan apreciar que sean consecuencia directa e inmediata de una actuación u orden del Ayuntamiento.

Asimismo, si el presupuesto de ejecución de la obra prevista en el proyecto se desviase en más de un 20 %, tanto por exceso como por defecto, del coste real de la misma, como consecuencia de errores u omisiones imputables al contratista, éste habrá de abonar una indemnización al Ayuntamiento, de conformidad con lo establecido en el artículo 315.1 de la LCSP.

7. Kontratistaren konturakoa eta erantzukizuna izango da, kontratazio-organoak berak kudeatzea erabaki ezean, lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea.

8. Kontratistak, bere erantzukizun esklusibopean, bete beharko ditu arlo hauetan indarrean dauden xedapenak: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, hondakin-kudeaketa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra, baita langileen soldata-baldintzak betetzeko betebeharra ere, aplikatzekoa den sektore-hitzarmen kolektiboaren arabera. Halaber, kontratistak bere kargura izan beharko ditu kontratuaren xedea betetzeko behar diren langileak, eta horiei dagokionean, ondorio guztietarako, enpresaburutzat joko da.

   Apirilaren 6ko 3/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzen dituenak, xedatutakoarekin bat, ohartarazten da kontratua bete egin behar dela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Segurantza Sozialaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

   Kontratistak kontratua gauzatzeko erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan-loturarik izango Lasarte-Oriako Udalarekin. Langile horiek kontratistaren zuzendaritzaren esku bakarrik geratuko dira, hargatik eragotzi gabe kontratazio-araudiak kontratazio-organoari aitortzen dizkion ahalmenak.

   Ondorioz, kontratistari dagokio kontratuaren zuzendaritza eta kudeaketa, eta kontratistak bere gain hartzen ditu benetako enpresa-arriskua eta langileekiko zuzendaritzako eta kontroleko ahalmenak. Beraz, zeregin horiek ez dagozkio erakunde kontratatzaileari, zeinak kontrol-ahalmenak baino ez baititu, eta hori guztia kontratua behar bezala gauzatzeko alderdien arteko lankidetza-harremanak alde batera utzita.

9. Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo, bere izaeragatik, isilpekotzat hartu behar bada. Betebehar hori BOST (5) URTEZ mantenduko da, informazio hori jakiten denetik hasita, salbu eta karatulako **13. atalean** edo kontratuan epe luzeagoa ezartzen bada; epe hori, nolanahi ere, zehaztu eta mugatu egin beharko da.

7. Será de cuenta y responsabilidad del contratista, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo, la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisos para la correcta ejecución de los trabajos.

8. El contratista deberá cumplir, bajo su exclusiva responsabilidad, las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, gestión de residuos, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de las personas con discapacidad, y la obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad, así como la obligación de cumplir con las condiciones salariales de los trabajadores conforme al convenio colectivo sectorial de aplicación, debiendo tener a su cargo el personal necesario para la realización del objeto del contrato, respecto del que ostentará, a todos los efectos, la condición de empresario.

   En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública, se advierte de que el contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

   El personal que el contratista destine a la ejecución del contrato no tendrá vinculación laboral ni de cualquier otro tipo con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Este personal quedará exclusivamente bajo el poder de dirección del contratista, sin perjuicio de las facultades que la normativa de contratación reconoce al órgano de contratación.

   En consecuencia, la dirección y la gestión del contrato corresponden al contratista, de forma que éste asume un riesgo empresarial verdadero y las facultades de dirección y control respecto de los trabajadores, por lo que estas tareas no corresponden a la entidad contratante, que únicamente tiene facultades de control, y todo ello con independencia de las relaciones de colaboración entre las partes para que el contrato se ejecute correctamente.

9. El contratista deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato a la que se le hubiese dado el referido carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal. Este deber se mantendrá durante un plazo de CINCO (5) AÑOS desde el conocimiento de esa información, salvo que el **apartado 13** de la carátula o el contrato establezcan un plazo mayor que, en todo caso, deberá ser definido y limitado en el tiem-

po.

10. Kontratistak datuak babesteko betebeharrak bete beharko ditu, agiri honen 11. klausulan ezarritakoaren arabera.

10. El contratista deberá cumplir con sus obligaciones en materia de protección de datos, de conformidad con lo establecido en la cláusula 11 de este pliego.

11. Kontratistak, SPKLren 202. artikuluaren arabera, karatulako **16. atalean** ezarritako baldintza bereziak bete beharko ditu kontratua gauzatzeari dagokionez, eta, hala badagokio, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei baldintza horiek betetzeko eskatu beharko die.

    Nolanahi ere, karatulako **11. atalaren** arabera, kontratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak, tratamenduaren arduradunaren kontura, datu pertsonalak tratatzea, kontratua gauzatzeko baldintza berezia izango da 27. klausulan ezarritako betebeharra, hau da, kontratistak datuak babesteari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharrekoa.

11. El contratista está obligado a cumplir con las condiciones especiales en relación con la ejecución del contrato que, de conformidad con el artículo 202 de la LCSP, se hayan establecido en el **apartado 16** de la carátula, así como a instar, en su caso, a todos los subcontratistas que participen en la ejecución del contrato a cumplirlas igualmente.

    En todo caso, siempre que, de acuerdo con el **apartado 11** de la carátula, la ejecución del contrato implique el tratamiento de datos personales por el contratista por cuenta del responsable, será condición especial de ejecución la obligación establecida en la cláusula 27 de cumplimiento por el contratista de la normativa nacional y de la Unión Europea sobre protección de datos.

12. Baldin eta, karatulako **11. atalaren** arabera, kontratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak datu pertsonalak arduradunaren kontura tratatzea, kontratistak nahitaez jakinarazi beharko du kontratuaren iraunaldian edozein aldaketa gertatzen bada baldintza-agiri honen 43.1.M klausulan aipatzen den deklarazioan emandako informazioan. Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

12. Cuando, de conformidad con el **apartado 11** de la carátula, la ejecución del contrato implique el tratamiento de datos personales por el contratista por cuenta del responsable, el contratista está obligado a comunicar cualquier cambio que se produzca a lo largo de la duración del contrato de la información facilitada en la declaración a la que hace referencia la cláusula 43.1.M de este pliego. Esta obligación tiene el carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

13. Kontratistak Udalari eman beharko dio, honek aldez aurretik eskatuta, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko moduari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar duen informazio guztia.

13. El contratista está obligado a suministrar al Ayuntamiento, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento por éste de las obligaciones previstas en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

14. Kontratuaren xedearen izaerak horretarako aukera ematen badu, Udalak hasieratik eskuratuko du ondasunen edo produktuen jabetza intelektuala edo industriala, eta kontratistaren erantzukizuna izango da berari egotz dakizkiokeen jarduketengatik jabetza-eskubide horren aurka sor daitezkeen kalteak.

14. En los casos en que la naturaleza del objeto del contrato lo permita, el Ayuntamiento adquirirá la propiedad intelectual o industrial de los bienes o productos desde su inicio, siendo responsabilidad del contratista los perjuicios que se puedan derivar contra tal derecho de propiedad por actuaciones a él imputables.

15. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta beste lege-testu hauetan garatua: Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, eta horiek garatzen dituzten arauak, besteak beste, indarrean dagoen Lasarte-Oriako Udalaren Euskararen Erabilera Plana.

15. Respecto a la actividad lingüística, el presente contrato está sujeto al régimen de doble oficialidad de la intervención establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma de Euskadi y desarrollado en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, General de Normalización del Uso del Euskera, en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi y en las normas que regulan el Plan de Euskera, entre otras.

Horren ondorioz, enpresa adjudikaziodunak indarrean dagoen Lasarte-Oriako Udalaren Euskararen Erabilera Planaren arabera jokatuko du eta hizkuntza-betebeharrak baldintza-agiri administratibo honetan jasotakoak izango dira.

Erakundearen irudia

a. Idatzizko elementuak (errotuluak, kartelak, oharrak …) bi hizkuntza ofizialetan jarriko dira:
   - Bi hizkuntza ofizialetan jarritako idatzizko elementuetan euskara nabarmenduko da, kokapenezko eta tipografiazko baliabideak erabiliz.

   - Euskara hutsean jarriko dira kasu hauetan:
     - Antzeko grafia denean euskaraz eta gaztelaniaz.
     - Mezua piktograma bidez ulergarria denean.
     - Errotulua udaleko langileak soilik ibiltzen diren eremuan dagoenean eta ez denean zailtasun tekniko berezirik.

Udalarekiko harremanak

a. Ahozko komunikazioa:
   - Udalarekin egiten diren ahozko harremanetan, ahal bada, euskararen erabilera lehenetsiko du enpresak.
b. Idatzizko komunikazioa:
   - Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko ditu. Udalarekin egiten diren gainerako idatzizko komunikazio administratiboetan, ahal bada, euskararen erabilera lehenetsiko du enpresak.

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren (9/2017 LED) ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 211.1.f) artikuluari jarraikiz.

Klausula administratiboen agiri honetan jasotako hizkuntzazko betebehar guztiak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio. Kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea.

48. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK ETA ZERGAK

En consecuencia, la empresa adjudicataria actuará de acuerdo con el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Lasarte-Oria en vigor y las obligaciones lingüísticas serán las recogidas en este Pliego Administrativo.

Imagen institucional

a. Los elementos escritos (rótulos, carteles, notas …) se colocarán en las dos lenguas oficiales:
   - En los elementos escritos redactados en las dos lenguas oficiales se destacará el euskera, bien mediante la posición utilizando medios de localización y tipográficos.
   - Se colocarán exclusivamente en euskera en los siguientes casos:
     - Cuando la grafía es similar en euskera y castellano
     - Cuando el mensaje es comprensible mediante pictograma.
     - Cuando el rótulo se encuentre en zona transitada exclusivamente por personal municipal y no presente especiales dificultades técnicas.

Relaciones con el Ayuntamiento

a. Comunicación oral:
   - La empresa priorizará el uso del euskera en las relaciones orales con el Ayuntamiento.
b. Comunicación escrita:
